

**ANTZERCI**



**ANTZERKI  
ZABALKYNDERAKO  
ALDIZKARIA**

**NOLA JIN, HALA JOAN.....**

**DANIEL LANDART**



# ANTZERCI

## NOLA JIN, HALA JOAN...

Daniel Landart



**Eusko Jauriaritza**  
Kultura Saila

## AURKIBIDEA

Hitzaurrea . . . . .	4
Jokolariak . . . . .	8
Lehen Zatia . . . . .	9
Bigarren Zatia . . . . .	24
<b>Síntesis</b> . . . . .	<b>37</b>
<b>Synthèse</b> . . . . .	<b>38</b>

ANTZERTI  
1985. 81 Alea




XALBADOR  
(1926-1976)  
Uztet / Behin / 2002

Anal-arrebak, ez otol, pentsa  
neure gustora nagonik,  
poz gehiago izango nuen  
albotik behar eginik;  
zuek ez hazerate kontentu  
errus ez daukat, ez, nik  
txistuaz jo dituzute hainan  
maite zaitzatoraindik!

Ez dakit egun zer pasatu den  
... otol uenen barruan,  
... ezberdin batzuk  
... anduan;  
... batzunik ez naiz  
... agola,

Xalbador



# HITZAURREA

**Z**azpi-zortzi urte nituzkeen, igande goiz batez, apezak, aldare gainetik, predikua bururatzean erran zigularik, arratsaldean, bezperetarik landa, herriko gazteek, Jauregiko sabaian komedia bat eskainiko zigutela, eta... bixkotxak ere erosten ahalko genituela.

Berri on hori entzutean loriatu ginen... gure herri ttipian ez baitzen segur gauza haundirik iragaiten eta begiak zurituak ginauden, zer izanen zen ote, delako komedia...

Beti oroituko naiz... Halako besta giro bizi bat ba zegoen gure herrian. Nik, egia errateko, ez nekien zer zen ere, xuxen, komedia, baina zerbait berezi, zerbait eder, zerbait lillurgarri zatekeela, hori bai, zinez sentitzen nuen.

Bezperetatik jalgi orduko, ondo-ondoan zegoen Jauregiko bidea hartu genuen. Sabaiako ate ondoan, mahai luze baten gainean... seroek apailatu «Choux à la crème» delakoak, han zeuden, gure zain. Haietatik bizpahirur jan nituen, ikilimiliklik. Gero, adin bereko lagunekin batera, sabaian sartu nintzen eta aitzin-aitzineko aulkian jarri.

Bere harri zaharrak agerian, sabai zabalak itxura ospetsu bat zeukan, eta belar usain bero batek gogoak doit bat kaldan ezarri zizkigun. Zer ikusi behar genuen bada? Sukar saminenak hartua, mila pentsaketetan ari nintzen, gauza zoragarrienak asmatuz eta bihotzetik gutziziatuz.

Luzaz itxoin genuen... baina ez ginen segur aspertu. Merkatuan bezala, emazteak, mihi azpiko zeina zaŕu, arras gora mintzo ziren; haur ausartenak aldiz, aulki tartean, tira ahala jostetan ari zirelarik... Azkenean, gizonak sartu ziren, banazka edo multzoka, beren bixkotxa partea janik, eta bereziki, beren baso arno xuria klikaturik.

Orduan, gauzak seriotu bezala ziren eta hiru tanka bortitzak jo zituztelarik, oihala bribrau zabaldu zen. Taula gaineko bi jokolariak ikustean berean, jendea irriz karkailaka hasi zen, eta komedia denboran entzunari, noiz behinka, batak edo besteak erantzutzen zuen, berdin zirto bipil bat gora-gora botatuz.

Bi komedia ikusi genituen. Lekenean, bakarrik neskatzek parte hartu zuten. Bigarrenean, bakarrik mutikoek. Eta gertatu zen ere, neska batzu gizon jantzitan agertu zirela, halaber mutiko bat edo beste, emakume arropetan.

Zer gai aipatu zuten, ez otoi eni galda, baina arratsalde goxo eta airos bat iragan nuela, horretaz bai, oroituko naiz, beti! Hastetik buru, hantxet egon nintzen, ahoa xabal-xabala, deblauki bestelakatuak ziren eta gehiago ezagutzen ez nituen herritar laborari gazte haien urrats pisu eta jestu herabe bitziei begira, inuminixtante beste mundu batetan sartu banintz bezala!

Orduan sortu zena ote, ni baitan antzerkirako tirria? Nork daki? Ala, amatxiren altzoan entzun Testamendu zahar eta Testamendu berriko hainbeste eta hainbeste ixtorio harrigarriek zidaten gogoan antzerki ildoan finkatu? Ez dakit. Biek, beharbada... Edo, beste zerbaitek oraino? Zoaz zu, jakitera!...

Dena dela, hamasei urtetan hasi nintzen jokolari edo antsezle gisa, Janamari Malharin andereak zuzentzen zuen Mugerreko taldean eta horrelaxe, Ernest Bidegain eta bereziki Piarres Larzabalen lanak ezagutu nituen. Ezagutu eta errotik maitatu.

Antzerkian aritzea oso gustatzen zitzaidan eta frango laster erabaki nuen sail horretan trebatu behar nuela, zinez sartu. Eta polliki polliki, idazten hasi nintzen, ber-denboran, ahal bezainbat antzerki liburu irakurritz eta hemen gaindi antseztu teatro obra guziak ikusiz.

Alegia deusez eta inori deus salatu gabe, zazpi antzerkino moldatu nituen eta bi itzulpen-antolaketa ere bai. Zazpi horietarik bat «Hilak hil», Donoztirin, neure sort-herrian emana izan zen, «Herra eta nigar» deituarekin aldiz, «Eskualtzaleen Biltzarrak» eskaini saria irabazten nuelarik.

Ondikotz, Iparraldeko euskal talde «amateur» guziak ezagutzen nituen eta federakuntza baten egitea beharrezkoa zela ikusirik, «Antzerkilarien Biltzarra» montatu genuen, Baigorriin, 1967an. Elkarre horri esker, antzerkilariak berek elgar hobeki ezagutu zuten, eta erraten ahal dut, halako giro berri sortu zela teatro munduan, antzerki lanaren hobetzen hasi ziren talde gehienak.

1968an, Baionako Herri Antzokian, oraino denek gogoan dugun Larzabalen «Matalaz» obraren aurkeztea, gertakari arrado eta itxaropentsu bat izan zen. Azkenean antzerki euskalduna hupatu zen iparraldeko hiri nagusira. Funtsean, garai hartan, euskal kulturak hats bizkor indartsu bat ezagutu zuen. Alabaina, ez zirena, urte haietan, lehen ikastolak ere sortu?

Eta euskal kontzientzia bera haize firfira ezti baten pare, edo batzutan frango bortitz, herriz herri hedatzen ari zen, ezazol eta tunante askoren gogo nagiak deblauki inharrosiz. Lehen abertzaleen su karsuak denak berotu nahi zituen, sail orotan ikusmolde berriak agertuz, ohidurak gutiaski zangopilatuz eta zuzengabeziak ozenki salatuz!

Horra, gutti gora behera, 1970ean, 22 urtetan, idatzi nuen «Bai ala ez» antzerkiaren gaia, mamia, eta erraten ahal dizuet ukan zuela aipaldi, gure Euskal Herriko subazter... edo beste edozein tokitan!

Antzerki horretan, ausartzia haundienarekin botatzen nituen golkoan nituenak oro eta ez da harritzeko beraz, batzuek, —apezek bereziki— gain-gainetik kondenatu bazuten. Hala ere, arrakasta haundia bildu zuen. Emanaldi bakoitz, antzokiak tanpez betetzen ziren, eta jende xumea loriatuki zegoen.

«Bai ala ez» bezala beraz, beste antzerkiak ere berdin idatziko ditut, bihotza utziz lehenik mintzatzera, baina gatz biperrak emateko aiantzi gabe. Egun guzietako bizian entzunak, ikusiak, sendituak, edo berdin doi bat asmatuak, ahal bezain polliki itzulikatuko ditut, kontatu nahi dudak ixtorioak ukan dezan hastapen bat, korapilo bat, eta azkenean, bururatza-pen bat; eta beti, entseatuko naiz, antzerkiaren ideologiarekin ados ez direnen ere poxi bat ene alde biltzerat, irria nasaiki sartuz. Irria bait da, antzerki batetan, harmarik hoberena.

Garbiki aitortzen dut beraz, ene antzerkien bidez, ideia bat, ikus molde bat pasa arazi nahi ukan dudala, edo bederen, ikusliarren baitan, gutienez, duda, kezka bat portarazi; ideia inapresten aurka altxatuz.

## 6 ANTZERTI

Baserritar xume semea izanez eta esku-langile, jende xehearen buruhauste eta eguneroko borroka idor higagarriak ezagutzen ditut, sentitzen, eta hor aurkitu dut, hain uxen, ene teatro lanen mitxa, zinezko funtsa.

Horrelaxe, urtez urte eta antzerkiz-antzerki, «Bai ala ez»-en ondotik, hemengo jendea errotik hunkitzen zuten-edo hunki behar zuketzen-gaiak aipatu eta ikertu ditut, eta hori, beti abertzale ikuspegi batekin. Bide harriskugarria segur! Zeren ordu arte, jendea, komedieta-  
ra, bakarrik irri egiteko bait zoon, jostatzeko, eta horra non, irriarekin batera —nik ere, lehenago erran bezala, irria brauki sartu dut— ahorra beraz, orain irriarekin batera, ordu arte antzerkietan ez entzun ahopaldi bipil, bortitz batzu aditzen dituztela. Eta ikusliarrek diote, nahitez, antzerki berri horiek gehiegi politizatuak direla. Dena politika dela hori.

Egia da —eta ez dut batere horretaz dolurik— antzerkiaz baliatu naizela, ikusmolde politiko batzuren deblauki agertzeko eta ahalaz ideia horien pasa-arazteko, ene ustez euskaldun gogoan argitzeko, aitzina-arazteko, hots, gure gizartearen aldatzeko. Ez naizela aski abilki jokatu eta hobeki eginen nuela, gauzen goragotik hartzea eta metaforetan dantzatzu ibiltzea? Berdin bai. Hori, beharbada, geroxago ikusten duzu, adinarekin, baina berriz ere diot: pentsatzen nuena, barne barnetik sentitzen nuena idatzi dudala, herrikoi mintzaira aixit baina ahal bezain garbian, eta horrelaxe, nere gisan, parte hartu eta hartzen dudala euskal populuak, gure herriak daraman borrokan.

Funtsean, Piarres Larzabal ere, jada, bide horretatik ibilia zen. Antzerki arin, irringarrien ondotik, hunkigarriak idatzi zituen, Euskal Herriko gure gizon famatuen bizia kondatuz, eta hor ditugu lekuko: «Etxahun», «Bordaxuri», «Matalaz», besteak beste...

Eta Larzabalek gizon historiko horien bizitza kontatu digu, Eliza Katolikoan finkatu bere apez ikusmoldearekin, erran nahi baita, haiek aipatzean, ororen buru, beste norbait zuela gogoan: Jesu-Kristo bat, umiliatua, baztertua, eta azkenean sakrifikatua izanen dena.

Telesforo de Monzon zenaren obretan aldiz, halako giro berezi bat sortzen da, jokolari nagusia lurretik airatzen edo urruntzen da, beti perfekzio haundiagoa bilatuz eta nahitez ametsaren munduan sartuz. Zerutik erori edo itzal bihirik gabeko gizon haren ondotik dabil Monzon.

Ene antzerkietan, ez da, ez Jesu-Kristorik, ez eta, gizon probidenzialik hanbat agertzen. Denak mundu hontakoak dira, egunero gurutzatzen ditugun jende normalak, gu irudiak, beren alde on eta txarrekin! Erabiltzen dituzten solasak ere, non nahi eta noiz nahi entzun dezazkegu, han edo hemen.

Nik, bide hori hautatu dut, eta bakarrik, edo jokolariekin aitzinetik hitzartu ondoan, idatzi ditudan hamabi antzerkietan, publikoak bere burua taula gainean ikusten du, jantzi eta mintzatzeko manera berdintsuekin. Beraz, eguneroko biziak eta teatroak bat egiten dute.

Forma didaktiko horrek ba ditu bere alde onak, baina ere, eta nola, bere alde txarrak. Jendeak dio: —«Ez du segurki balio, antzerki ikustera pagatuz joaitea, teatro mota hori, etxean berean ba dugularik, eta kitorik (debalde) gainera»!

Horra hor, bi gogoetaren —edo hobeki erraiteko, bi mila gogoetaren— egiteko padara. Eta batzu segurik, nihaurek ere egin ditut, bost urte egonez deus berririk idatzi gabe. Egia da, ideia berak ukanik ere, bizi arau, gauzak aldatzen direla, ikusmoldeak halaber. Eta hanbat gaixto, ez baldin badakigu gure iritzien errebertitzen... hobetzen.

Haatik, ez oraino eni galda, delako egiazko bidea —giltza— aurkitu dudanez... Funtsean, ez dut uste, egiazko biderik ba denik ere! Bideak, ba direla bai. Eta idazle bakoitzak



bilatzen eta ahalaz aurkitzen du berea. Horregatik, azken hogeitau urte hauetan, gauza ezberdinak ikusi ditugu, nahiz, hala ere ez den urradura berezi garrantzizkorik agertu. Obra guztiak, orohar, berdintsuak izan dira. Dela irria, dela drama, euskal antzerkia ez da oraindik behar bezala zapartatu. Eta beraz, bidea, enetzat segurik haxe da: lan egitea! Beti bilatzea. Zilatzea. Barnatzea. Sail orotan. Bai idatz mailan. Bai eta, jokolari gisa. Eta hitz dizuet ba dugula lan egiteko. Nahiz, azken urte hauetan, gure antzezleak urrats beharrezko batzuren egiten ari diren, formakuntza serio bat segituz. Baina horrek ez du deus handirik balioko ez badira ber denboran idazle berriak sortzen, zuzendari berriak jalgitzen, eta bereziki, publiko aldetik, jendea ez bada mugitzen, hots, teatroari zinez ohartzen eta agerkizunetara ostean etortzen.

Teatroa Euskal Herrian, komunikabide haundi bat izan da, gisa askotara, bizi-emaila, eta gaur egun ere berdina izan behar luke. Horregatik, sala barneko teatro tinki, hertsitan mugatzeko partez, ongi litzateke, beharbada, gure arbasoen ohidurak berriz agertuz, teatro orokor bat munta bagineza: dantza, soinua, kantua, bertsoa, eta bixtan da, elea, (min-zoa) abilki eta izarian nahastikatuz! Alabaina, mila aberastasun ba ditugu ongi baliatzen ez ditugunak!

Horrelako baten egiteko kapable bagine, hastapenean aipatu bezala, teatroa zinezko besta bat, besta haundi bat bilaka litzateke eta gure euskal antzerkiak, bai hemen eta bai atzerrian, ez lezake irabaz baizik.

***Daniel LANDART***

**JOKOLARIAK**

<i><b>Ixabel</b></i> (herriko mutxurdir bat).....	46 urte
<i><b>Koxepa</b></i> (zortzi haurren ama).....	58 urte
<i><b>Kalixtro Bixok</b></i> (herriko gizon berezi bat).....	53 urte
<i><b>Menane</b></i> (Auzapezaren alaba zozoa).....	20 urte
<i><b>Tarrapat</b></i> (Mezularia).....	36 urte
<i><b>Klemente Zingil</b></i> (auzapeza).....	55 urte
<i><b>Don Ipolit</b></i> (Apeza).....	64 urte
<i><b>Nestor</b></i> (Herriko mutila).....	50 urte
<i><b>Lili</b></i> (aztia).....	35 urte
<i><b>Tirari</b></i> .....	45 urte
<i><b>Dantzari bat</b></i> .....	23 urte
<i><b>Tripero</b></i> .....	72 urte

# LEHEN ZATIA

## I. GERTALDIA (Iturrian)

(Mihise urdin bat lurrean, hiru latsa-harri).

### KOXEPA

*(Ezker aldean dagoen latsa harriaren gibelean, KOXEPA, mihi-se baten xuritzen ari da, belaunikaturik. Ezker eta eskuin begiratzen du, aspertua dela erakutsiz eta bereziki sendi-araziz norbaiten aiduru dagoela. Bultaño baten buruan emazte bat sartzen da, saskia sorbalda gainean... IXABEL ere belaunikatzen da. Bien artean uzten dute latsa-harri bat hutsik).*

### KOXEPA-IXABEL

**KOXEPA**— Azkenean! Ez da goizegi... Uste ez banuen goiz guztia bakarrik iragan behar-ko nuela...

**IXABEL**— Ah... Gaixo Koxepa... Ba zeneki zer gaua pasa dudan... Zer gau izigarria!

**KOXEPA**— Zer zenuen ba... Ixabel?...

**IXABEL**— Akerra!

**KOXEPA**— Akerra?

**IXABEL**— Bai, Koxepa, bai! Akerra eztulka...

**KOXEPA**— Akerra eztulka? Nongo akerra? Ez duzue zuek akerrik...

**IXABEL**— Guk, ez... Harrxiloko akerraz naiz mintzo... Harrxiloan orain, fantasia haundian, erosi bait dute akerra, zazpi ahuntzekin...

**KOXEPA**— Eta Harrxiloko akerraren eztula entzuten zenuen zuk?

**IXABEL**— Bai Koxepa, bai! Gau guztian...

**KOXEPA**— Ez da posible... Harrxiloa zuen etxetik biziki urrun da... Zaude, zaude...

**IXABEL**— Ez du balio... Ni segur naiz Harrxiloko akerra zela...

**KOXEPA**— Non zabilta, Ixabel... Akerraren eztula biziki bortitza izanagatik... ez zenuen halere zuk, hiru kilometrotan adituko...

**IXABEL**— Haizea...

**KOXEPA**— Haizea?

**IXABEL**— Eta bai Koxepa... Haizeak ekarri dit Harrixiloko akerraren eztula belarrietara!

**KOXEPA**— Hum... Ba da hor besterik...

**IXABEL**— Zer ote?...

**KOXEPA**— Nork daki... Zu oraino ezkont gabea izanki eta... behar bada zure leiho azpira norbait etorri daiteke...

**IXABEL**— Jainkoaz, zaude ixilik... (Eta brau xutitzen da).

**KOXEPA**— Eta zuri, han zela konpreniarazteko, delakoa... eztulka ari izan da... Eta zuk uste ukan, gaixoa, Harrixiloko akerra zela...

**IXABEL**— Iziarazten nauzu... Ene leiho azpian... (**Durduzatua**). Gizon bat... Uiuuiuiui! (**Bortizki**). Ez, Koxepa! Harrixiloko akerra zen! Hortaz segur naiz!...

**KOXEPA**— Ni, ez ba... Preseski, egun hauetan, Elizanburuko Pilale biziki marranta da... mafrundi... Eta...

**IXABEL**— Eta?

**KOXEPA**— Eta beraz eztula merke dukeela...

**IXABEL**— Pilale bego Elizanburuan... bere zango motzarekin... Zangoa moztu aitzin hasi balaut eztulka, ez dut erraiten... Baina orain, berantegi da. Berantegi... Eta egia deblauki jakin nahi baduzu, erranen dizut ahoan bilorik gabe: hautatu behar eta, nahiago nukeela oraino Harrixiloko akerra, Elizanburuko Pilale baino...

**KOXEPA**— Baina Ixabel, zure arrazoinamendua akerraren adarrak baino makurragoa da! Pilale mutiko plantakoa da...

**IXABEL**— Behar bada... Baina haren usainaren aldean, Harrixiloko akerrarenak... (Gizon bat sar bedi. Hura ikusi orduko, bi emazteak net kalakatik gelditzen dira eta lanari lotzen).

### **KOXEPA - IXABEL - KALIXTRO BIXOK**

(KALIXTRO BIXOK bi emazteen erdian belauniko plantatzen da deus erran gabe. Ez dute elkar agurtzen. Zare tiiki batetatik, lehenik, galtzerdiak ateratzen ditu eta haien xuritzen hasten da. Bi emazteek, diskretuki, noiz behinka, elkar begiratzen dute, irri trufari bat ezpainenat...)

**KOXEPA**— Zer denbora...

**IXABEL**— Zuk errazu... Jainkoari esker ez dugu arrenkuratzekorik...

**KOXEPA**— Eta gure gizonak dionaz...

**IXABEL**— Berdin segituko duela?... (**Burua igitzen du, batean, gizonaren aitzinetik mintzatzeko, bestean atzetik**).

**KOXEPA**— Bai, bai... Hiruzpalau egunez aro bera ukanen omen dugu...

**IXABEL**— Hobe... Hobe...

**KOXEPA**— Ba araz... Gure xuriketak, horrela, laster idortuko zaizkigu... (**Galtzerdien ondotik, galtsun luzeak ateratzen ditu KALIXTRO BIXOKek**).

**IXABEL**— Denbora ederra baina, frango frexko halere...

**KOXEPA**— Bai, bai... Bultaka... Zer nahi duzu... Negua heldu, ori... Negua heldu...

**IXABEL**— Bai... Eta batzuek, besteak baino goizago senditzen negua...

**KOXEPA**— Dударик gabe... Bereziki ofizio geldi bat dutenek... Edo bestela, berenaz doi bat delikatuak direnek... Jakizazu gure gizonak segurik ez dutela neguaren beldurrik!...

**IXABEL**— Zenbait eztul goiti-beheiti joanen da ba negu hau ere... besteak joan diren bezala...

**KOXEPA**— Bai, bai... zenbait eztul goiti-beheiti.

**IXABEL**— Eztula baizik ez bada...

**KOXEPA**— Hori, hori... Jakitea da haatik, delako eztulak zenbat iraunen duen... (**KALIXTROk atorra kentzen du eta larru-has dagoela atorra xuritzen du. Emazteek begiak hesten dituzte. Xuritu ondoan, hiruzpalau zafraldi ematen ditu, eguzkitara xuka arazi nahi balu bezala eta gero berriz soinean ezartzen du... Zareñoa hartzen du eta ba doa, sudur mintzo eskerniolari batekin erranez**):

**KALIXTRO**— Zer denbora... Zer denbora ederra! Akerrarendako!...

### **KOXEPA-IXABEL**

**IXABEL**— Aditu duzu Koxepa... Aditu duzu bihurri horrek zer erran duen...

**KOXEPA**— Bai. Akerrak aipatu ditu.

**IXABEL**— Segur naiz gure solasak entzunak zituela. Iturrira jin aitzin, gure barrandan egona zitakeen, zirtzil hori!

**KOXEPA**— Uste duzu?

**IXABEL**— Bixtan da baietz. Funtsean ez naiz harritzen... Gizon hori lanjerosa da. Ni betitik mesfidatu naiz hortaz... Beti... Ez da besteak bezalakoa hori... Burutik maingu da. Edo izaitekoz, burua hutsa du horrek. Zeren, guk bezala, burua betea balu, ez lezake egun osoa irakurtzen pasa... Uste du liburuek tapatuko diotela buruan daukan ziloa! Gaixo mintsa... Gaixo xoxoa! Eta ikusi duzu... gainera, ez duke atorra bat baizik! Trixte horrek!

**KOXEPA**— Emeki, emeki Ixabel... Biziki jakintsuna omen da gure Kalixtro Bixok. Filosofia zer den ba omen daki... Badakizu zuk Ixabel... zer den filosofia?...

**IXABEL**— Bai, badakit!

**KOXEPA**— Zer da? (**Ondo-ondora hurbilduz**).

**IXABEL**— Akerraren eztula!

(**MENANE sar bedi, zakur «falsu» bat besoetan**)

**KOXEPA-IXABEL-MENANE**

*(Ez du hanbat beste bi emaztei kasu egiten. Burua beti mugika ari zaio. Arrunt bitzia da).*

**MENANE**— Zakurra  
Pin patapun pin pun pan  
Zakurra eskaleeretan  
erori...  
Pin patapun pin pan  
Zakurrak  
Eskaleerak  
Itzulikaka jautsi  
Eta ixterra hautsi!  
Auu Auu Auu Auu...  
Gaixo Kiki...  
Zakurra erori,  
Zakurra eri...  
  
Zakurrak buruan  
Bi ban bum bin  
Zakurrak buruan min!  
  
Kiski kaska koska  
Zakurrak begian maska...  
Kokarra,  
Okerra...  
Beste begia nigarrez  
Buztana beldurrez...  
  
Gaixo Kiki!  
Zakurrak sukarra...  
Galdua indarra,  
Ezin egin lasterra!  
  
Pin patapun pan pun  
Nor da hobendun?  
Aita!  
  
Aitak zakurrari  
Ostiko bat igorri...  
Zakurra erori  
Eskaleerak jautsi  
Pin patapun pin pun  
Eta ixterra hautsi!  
  
Burua kaskatu,  
Begia okertu...  
  
Gaixtoa, aita!  
Nik emanen aitari  
Aitak zakurrari

Eman diona:  
Pin pan  
Ipurdian  
Ostiko bat ona! (*Jestua eginez*)

(*Eta MENANE ba doa*)

### **KOXEPA-IXABEL**

**KOXEPA**— Zakurra erori, zakurrak buruan min... berak bai, noizbait, kaska on bat bildu...

**IXABEL**— Gaizo Menane... Zer trixtezia bestenaz, holako jaun auzapez argiaren alaba ba-  
karra gisa hortan ikustea!... Arrunt zozoa...

**KOXEPA**— Mintzo baita bederen...

**IXABEL**— Mintzo, mintzo... Zeren erraiteko?!

**KOXEPA**— Hori ere, alta, hala da bai... Beti oroituko naiz... Bazko arratsalde batez... gure  
Maitexaren ondoan zen eta...

**IXABEL**— Maitexa, zuen seigarrena da, ez?

**KOXEPA**— Ez. Azkenaren aitzinekoa. Zazpigarrena...

**IXABEL**— Zenbat urte ditu, orain?

**KOXEPA**— Kasik hogei... Beraz, segi dezadan... Bazko arratsalde batez, tira ahala kantuz  
ari zen: Hik eta nik piztu Jauna... (**kantatzen du, bietan**). Hik eta nik piztu Jauna...  
Hiletarik piztu Jauna erraiteko partez...

**IXABEL**— Konprenitua nuen, bai... Gaizo trixtea... Fitxitako ez omen da on... Fitxitako...

**KOXEPA**— Ez eta aker zaintzeko ere!...

**IXABEL**— Alta, ez du eztulik ori, horrek!

**KOXEPA**— Eta bi zangoak, ongi...

(*Sala atzetik gizon bat oihuka eta lasterka agertzen da eta ikuslarrien erditik pasatzen*).

### **KOXEPA-IXABEL-TARRAPAT**

**TARRAPAT**— Eh... Eh... Errazue... Errazue, emazteak... Jaun auzapeza ikusi nahi nuke...

**KOXEPA**— Jes, nor dugu hori? (**Erdi ahopetik**).

**IXABEL**— Ez dut ezagutzen...

**TARRAPAT**— Non bizi da auzapeza? Eh—. Errazue... Ba dakizue zuek, non bizi den he-  
rri hontako alkatea?

**KOXEPA**— Bixtan da ba dakigula... Zer nahi diozu?

**TARRAPAT**— Ikusten ahalko dut? Segidan mintzatu nahi nioke...

**IXABEL**— Hortxe bizi da, ondo ondoan...

**TARRAPAT**— Zoazte otoi haren bila... *Eta erraiozue izigarriko, harrigarriko, ezin sinetsizko berri batekin natorrela...*

**KOXEPA**— *Zer da? Zer da?*

**TARRAPAT**— *Ez dizut salatzen ahal. Zoaz auzapezaren bila... Segidan... Segidan...*

**KOXEPA**— *Ba noa. Ba noa. Jainkoa! Ez al da zerbait deabrukeria bederen... (eta zeinatzzen da).*

**TARRAPAT**— *Ez duzu asmatzen ahal. Norbait etorriko da.. Egundaino munduak ikusi ez duen norbait...*

*(Eta ezin konprenituzko jestu haundi batzu egiten ditu).*

**IXABEL**— *Zoaz, Koxepa, Klemente Zingil gure auzapez onaren bila... Ni, baleki bale, apezaren abisatzera noa... (Eta biek betan derasate):*

**K. eta I.**— *Ez baginu bederen... Ez baginu... akerra hain usu aipatu !... (Eta bi emazteek beren xuriketak biltzen dituzte eta beste deus erran gabe jalgitzen dira).*

### **TARRAPAT**

**TARRAPAT**— *Eskua altxatu du. Altxatu. Eta mendia... Animaleko mendi bat kurri abiatu da. Kurri. Eta mendia tokiz aldatu du!... Mendia tokiz aldatu!... (Bi besoak airean eta postura bitzi batetan tanpez gelditzen da).*

*(MENANE agertzen da, bere zakurra besoetan).*

### **TARRAPAT-MENANE**

*(MENANE lehenik burua apalik zakurrari so, gero TARRAPAT ikusten duelarik):*

**MENANE**— *Kiki... Huia, huia, Kiki... Arrotza dun hori... Huia, huia. Ausikan. Ausik! Ez dun hemengoa. Xanpa. Xanpa! Are, are! Naka... Naka... Ez. Ez. Geldi, Kiki. Geldi. (Gizonari gaineratik behera begiratuz). Ederra. Bai, bai, bai, bai, bai... ederra. Mutua baina ederra... Doi bat kainkaila... zingila... Bai, haundixkoa... baina aurpegi gozoa... Eh... Kiki?... Gustatzen zain? Bai?! Eh zu... Gizon... nahi zenuke ene Kikirekin ezkondu??! (Auzapeza sartzen da, urrats haundi).*

### **TARRAPAT-MENANE-KLEMENTE ZINGIL**

**KLEMENTE Z.**— *Mename! Menane! Zer ari zara hor? He! Zer ari zara! Zoaz berehala! Zoaz hemendik etxera! Aditzen duzu! Joaiteko!*

**MENANE**— *Ausikan, Kiki! Ausikan!*

**KLEMENTE Z.**— *Menane! Kuku zaitetz, kuku! Gorde! (Eta MENANE urruntzen da, baina arrunt atera aitzin jestu bat egiten du aitari ostiko bat ematen balio bezala...).*

### **TARRAPAT-KLEMENTE ZINGIL**

**KLEMENTE Z.**— *Zu zara delako mezularia?*



**TARRAPAT**— Ni naiz, bai...

**KLEMENTE Z.**— Xuxen nor zara eta zer berri ekartzen diguzu?

**TARRAPAT**— Ni Jauna, bidez bide nabila, mendiz mendi, itsasoz-itsaso... kurritzen ditut herriak, hiriak, erresumak... Horrela berriak jakiten ditut. Eta berriak zabaltzen... Jakin nahi dituztenei...

**KLEMENTE Z.**— Eta zein da gaurko zure berria?

**TARRAPAT**— Izigarria da. Egundaino...

**KLEMENTE Z.**— Erradazu bada...

**TARRAPAT**— Erranen dizut... Baina lehenik ordaindu behar nauzu. Ni berriketarizatik bizi naiz... (**Eta eskua luzatzen du. Jaun auzapeza dudan dago ordaindu behar duenez ala hortik alde egin**). Zure beharriek ez dute inoiz horrelakorik entzun... Funtsean ene begiek ere ez zuten egundaino horrelakorik ikusi... Sinets nezazu, Jauna. Sinets. Eta jakin ezazu, ez zaizula dolutuko eni bi sos emanik! Harrigarria. Sekulan ez gertatua... (**Lerro hauek, kasik oihuz erranen ditu, hirietako kasetak saltzaleek egiten duten bezala**).

**KLEMENTE Z.**— Ori... Eta orain konda iezaidazu!

**TARRAPAT**— Herriz herri dabila delakoa... Sekulakoak egiten ditu... Ezin sinetsiak... Azkenik, azkenik ikusi dudan gauza...

**KLEMENTE Z.**— Zer da?

**TARRAPAT**— Mendi bat tokiz aldatu du!

**KLEMENTE Z.**— Zaude isilik!

**TARRAPAT**— Egia baietz! Berriz ere diot, nihauren begiz ez banu ikusi, nik ere ez nuela sinetsiko baina egia bait da! Garanti! Garanti!

**KLEMENTE Z.**— Mendi bat? Nitaz trufatzen zara!

**TARRAPAT**— Ezetz! Funtsean zuhaurek jukatzen ahalko duzu, herri honi buruz heldu da...

**KLEMENTE Z.**— Ez dut nahi honara jin dadin! Ez dut saltsarik nahi! Gu, hemen, bakean bizi gara. Bakean! Aditzen duzu? Ez dugu hemen deabru beharrik!

**TARRAPAT**— Ez du deus kalterik egiten... Herri guzietan haren beha daude...

**KLEMENTE Z.**— Ez dut nahi gure mendi bakarra tokiz alda dezan... Ontsa da den tokian!...

**TARRAPAT**— Herri bakoitzean gauza bereziak egiten ditu. Eta auzo-herrian, mendia tokiz aldatu badu, ez du, horrela, burutik pasa zaiolako egin... Herritarren izenean auzapezak galdegina zion... Mendia toki hartan, poxulu zutelakotz...

**KLEMENTE Z.**— Ah... hola ba... Errazu eta... delakoak, eriak sendatzen ditu?

**TARRAPAT**— Bixtan da baietz...

**KLEMENTE Z.**— Zozoak ere?

**TARRAPAT**— Dударik gabe...

**KLEMENTE Z.**— Errazu eta... delakoa, zer gizon mota da?

**TARRAPAT**— Gizon mota... Gizon mota... Delakoa... emazte bat da...

**KLEMENTE Z.**— Emazte bat? Jainko ona! Eta sinets arazi nahi ukan didazu mendia tokiz aldatu duela! Emazte batek?! Oraino, gizona izan balitz!

(*Eta urrats haundiz abiatzen da, TARRAPAT ondotik segitzen zaio...*)

**TARRAPAT**— Eh, eh... Jaun auzapeza, zaude... Zaude... Beste xehetasun batzu ba ditut... Eh... zaude...

(*Eta biak jalgitzen dira. Haiak atera orduko, MENANE berriz agertzen da, aldi hontan zakurrik gabe.*)

### **MENANE**

**MENANE**— La la la... ni ezkonduko naizela...

La la la... ni ezkonduko naizela... La la la...

(*Lerro hori asko moldeetara erranen du. Eta hor erdi jauzika, josteta ari delarik, alegia deusez, hiru latsa-harriak elgarren gainean ezartzen ditu; mi-hise urdina hartzen du eta bizkar gainean ezartzen; gero gaintto hortara hupatzen da eta irudi luke... Ama Birjina!*)

## **II. GERTALDIA (Elizan)**

### **DON IPOLIT**

(*Apeza sartzen da, kurutzearen seinalea egiten du, belaunikatze labur bat aldarearen aitzinean eta gero «Ama Birjinaren» ondoan deblauki belauniko, burua bi eskuen ahurrean.*  
(*Geroxago IXABEL sartzen da.*)

### **DON IPOLIT-IXABEL**

**IXABEL**— Don Ipolit. Don Ipolit... (*Apeza ez da mugitzen...*) Don Ipolit... Ni naiz, Ixabel...

**D. IPOLIT**— Kofesatu nahi baduzu, zatoz arratsaldean... Orain, nik, debozionario ordua dut... (*Burua beti bere bi eskuen barnean.*)

**IXABEL**— Don Ipolit... Ez da kofesatzeko...  
(*Apeza brau xutitzen da.*)

**D. IPOLIT**— Zertako beraz?

**IXABEL**— Iturrian nintzelarik... Goiz huntan... Oh, Jauna, ez dakit nola has... Goiz huntan... Iturrian nintzelarik... (*Jestu bitzi bat egiten du.*)

**D. IPOLIT**— Segi Ixabel, segi...

**IXABEL**— Ez dakit erran behar dizudanez... Zeren gero, ez nuke nahi... Gaizki... Ba dakizu... Gauza hori... Ez baita... Ondorioak ukaiten ahal ditu... eta beraz... Ez dakit... (*Jestuak emendatzen ditu...*)

**D. IPOLIT**— Zer derasazu?

- IXABEL**— Oh! Don Ipolit... ez da erraz mintzatzea... Eta futxo, nola egon fitxik erran gabe...  
Alta, behar bada, hobeki egin nezake isiltzea... Baina orain hasia naiz eta ezin gel-  
di... Konprenitzen nauzu?
- D. IPOLIT**— Batare! Ez dut deus konprenitzen! Eta utz nezazu bakean! Debozioneko or-  
dua dut!
- IXABEL**— Otoi Don Ipolit adi nezazu. Ez nuke ondoko urrikirik nahi...
- D. IPOLIT**— Mintza zaitetz, beraz! Eta klarki!
- IXABEL**— Horra beraz... Goiz huntan iturrian nintzelarik...
- D. IPOLIT**— Hori ba dakit!
- IXABEL**— Hortan da guztia...
- D. IPOLIT**— Zer hortan dela guztia?! Goiz hontan iturrian izan zarela... Horren erraitera  
etorri zaizkit ene debozioneko ordu sakratuenean? Hori da zure berria? Nitaz trufa-  
tzen zara, ala? Zatoz segidan kofesatzera! Ofentsatu nauzu!
- IXABEL**— Otoi Don Ipolit, utz nezazu mintzatzerara... Bestela ez dizut sekulan kondatzen  
ahalko iturrian zer entzun dudan... Zer... (**Jestu berezi batekin**).
- D. IPOLIT**— Eta zer entzun duzu... ba?
- IXABEL**— Fama da... Baizik eta... Izigarriko... Harrigarriko... Ezin sinetzisko...
- D. IPOLIT**— Trenka ezazu! Trenka! Ez naiz goiz guztia zuri beha egoiten ahal, Ama Birji-  
na bera utzirik...
- IXABEL**— Horra beraz. Norbait abiatua omen dela gure herriari buruz... Norbait...
- D. IPOLIT**— Eta gero?...
- IXABEL**— Ez zaizu aski, Don Ipolit?... Eni, horren aditzeak berak sabela ikaran ezarri dit...  
Nork daki delako norbait hori nor ditakeen?... Jaioko ona! Pentsatzeak berak burua  
itzulika arazten dit...
- D. IPOLIT**— Ikusten dut. Baina orain aski Ixabel! Kontrizionezko akta on bat errazu eta  
gero segidan etxera joan! Porru salda bero bat jan eta lehen bai lehen ohean planta!  
Horra zeren beharra duzun, duk!  
(**KOXEPA sartzen da**).

**DON IPOLIT - IXABEL - KOXEPA**

- KOXEPA**— Don Ipolit... Don Ipolit...
- D. IPOLIT**— Zer duzu zuk ere?...
- KOXEPA**— Ixabelek jada aipatu dizu, ez?... Ni ere gauza berarentzat heldu naiz... Kle-  
mente Zingil jaun auzapezaren etxetik nator... Hura ere, ez dago batere fida, zer igu-  
rikatzen ote giatuen...
- D. IPOLIT**— Zer da komedia hau? Esplika zaitetzte bada!...
- IXABEL**— Jada errana dizut... Goiz huntan iturrian ginelarik...

**D. IPOLIT**— Baietz! Baina iturrian zer gertatu da? Hori dut jakin nahi...

**KOXEPA**— Beldur naiz erraiteko...

**IXABEL**— Ni ere bai...

**D. IPOLIT**— Mintza... Mintza...

**KOXEPA**— Entzun dugu... Norbait, gure herriari buruz abiatua omen dela...

**IXABEL**— Pasatzen den toki guztietan...

**KOXEPA**— Bazter guztiak xehetzen dituela!...

**IXABEL**— Beldur naiz, beldur!

**KOXEPA**— Jainkoak begira gaitzala!...

**IXABEL**— Gizon bat omen da...

**KOXEPA**— Animaleko gizon bat...

**IXABEL**— Bost kintal pizu dituena...

**KOXEPA**— Zilkorainoko bizar batekin...

**IXABEL**— Deabru bat! Luzifer bera baino gaixtoagoa!

**KOXEPA**— Haurrak hiltzen omen ditu... Jainkoa! Nik zortzi ukanki eta...

**IXABEL**— Birjinak bortxatzen... Jainkoa... Ni, oraindik...

**KOXEPA**— Ez omen du zorigaitza baizik ekartzen...

**IXABEL**— Eta behar bada munduaren akabantza...

**K. eta I.**— Entzuten gaituzu Don Ipolit? Entzuten gaituzu...

**D. IPOLIT**— Bai...

**K. eta I.**— Eta zer diozu?

**D. IPOLIT**— Fitxik!

**KOXEPA**— Bestalde, aitortu behar dizugu...

**IXABEL**— Iturrian ginelarik...

**KOXEPA**— Maiz aipatu dugula... akerra!

**IXABEL**— Akerraren eztula...

**KOXEPA**— Gaizki egin dugu, ez?

**IXABEL**— Erraguzu gaizki egin dugula!

**D. IPOLIT**— Bai! Gaizki egin duzue! Emazteek ez dute sekulan akerrik aipatu behar! Bekatu mortala da hori!

**K. eta I.**— Bekatu mortala?

**D. IPOLIT**— Mortala!

**KOXEPA**— Ez nuen beste beldurrik!

**IXABEL**— Etorriko da beraz, delakoa!... Eta denak lehertuko gaitu!

**KOXEPA**— Denak suntsituko ditu!

**IXABEL**— Egizu zerbait, Don Ipolit. Egizu zerbait...

**KOXEPA**— Jainkoaz egizu zerbait!

**D. IPOLIT**— Lehenik, proosione bat antolatuko dut aire pozoindatuaren kontra...

(*Eta zaitz Ama Birjioa besoetan hartuz, segitzen du erranez*): Eta zinez, berriz entzuten badut, norbait, arrotz bat, gure herrira datorrela, bazterrak nahasi beharrez, ni, Don Ipolit, herri hontako arimen artzaina, Ama Birjinaren itxura besoetan, herri honen sartzean plantatuko naiz, eta delakoa, izan gizon, izan deabru, tanpez geldiaraziko dut!

**K. eta I.**— Biba zu, Don Ipolit, biba zu! Dominus vobiscum... Dominus vobiscum! Biba zu!

(*Eta dena zeinatze eta otoitz ateratzen dira, apezak bere besoetan Ama Birjina karreatzen duelarik. Emazte batek, gaineko latsa-harria kentzen du eta lurrean ezartzen*).

### **III. GERTALDIA (Herriko Plazan)**

#### **KLEMENTE ZINGIL - TARRAPAT**

(**KLEMENTE ZINGIL eta TARRAPAT eskuin aldetik agertzen dira, solasean**):

**KLEMENTE Z.**— Erranak erran beraz... Baina kasu: «Hitza hitz edo... emaztea hits!» Gure herrira etorri nahi balinbadu, eta hemen, mirakuilu edo zerbait halako egin, lehenik, bere ahalen eta indarren froga gisa, Menane ene alaba sendatu beharko du! Bestenaz, ez diot gure herrian sartzeko baimenik emanen!

**TARRAPAT**— Baietz! Eginen duela... Pentsa... mendi bat tokiz aldatzeko kapable den bati, ez zaio ez haundi, buru baten plomuan ezartzea!

**KLEMENTE Z.**— Ikusiko... Ikusiko...

**TARRAPAT**— Haatik, aitortu behar dizut, delakoa, frango ohore gose dela... Eta orain arte izan den herrietan, besta ederrak, besta zoragarriak egiten dizkiotela... Herriko kantari, dantzari, bertsulari eta soinuariak han zituen ongietorriarendako...

**KLEMENTE Z.**— Zaude gustuan! Hemen ere ez zaio ezer faltako!...

**TARRAPAT**— Ba noa beraz... Eta berehala jakinaraziko diot... haren beha zaudetela! Laster arte...

**KLEMENTE Z.**— Ez adiorik!

(*Auzapezak sakelatik paper haundi bat ateratzen du... eta irri ederra eginez begiratzen dio. Hainbestenarekin, DON IPOLIT agertzen da*).

#### **KLEMENTE ZINGIL - DON IPOLIT**

**D. IPOLIT**— Errazu, Jaun auzapeza, zer entzun dut? Eh... zer entzun dut...

**KLEMENTE Z.**— Nik dakita... zuk zer entzuten dukezun... Kofesategi zilo horretan! Ez nuke haundiegirik aditu nahi...

**D. IPOLIT**— Ez dezazula otoi ez jakinarena egin. Berdin, ba dakit, ba dakizula... Eta zer dira zurru-murru itsusi horiek?

**KLEMENTE Z.**— Zer nahi duzu erantzun diezazudan? Nik bezainbat ba dakizu...

**D. IPOLIT**— Emazte guztiak izituak ditut...

**KLEMENTE Z.**— Ba diteke...

**D. IPOLIT**— Eta beraz?

**KLEMENTE Z.**— Beraz? Gauden beha... Zer uste duzu gertatuko dela? Ez dira atsoen erran guztiak sinetsi behar...

**D. IPOLIT**— Abertitzen zaitut Klemente Zingil: ez nuke nahi gure herrian eskandalarik izan dadin! Arimen artzaina naiz; arima guztiak salbatu behar ditut... Ez nuke nahi, ene artaldeko ardi bakar bat errebela dadin!

**KLEMENTE Z.**— Zaude gustuan jaun erretora. Gustuan! Ni auzapez naizeno, herri hon-tan ez dela deus gertatuko. Ez ala fede!

**D. IPOLIT**— Deabrua beti lanean ari bait da, Klemente...

**KLEMENTE Z.**— Ba dakit hori, ba dakit.

**D. IPOLIT**— Deabruak, buruak itzulika eta mugiarazten bait ditu...

**KLEMENTE Z.**— Geldiaraz baliza bederen!

**D. IPOLIT**— Zer? Zer derasazu? Deabruari deika, zu ere?

**KLEMENTE Z.**— Jainkoaz, ez horrelakorik erran!

**D. IPOLIT**— Karguak, karga... Oroit!

**KLEMENTE Z.**— Eta nola!

**D. IPOLIT**— Ez adiorik...

**KLEMENTE Z.**— Bai. Bide on!

(Eta apezza doa).

### **KLEMENTE ZINGIL**

(Auzapezak, sakelatik paper haundi ateratzen du gainean diren bi latsa-harrien gainean pausatzen, bera hirugarren latsa-harriaren gainean jartzen da eta idazten du... Bere buruaz harro, kontent dela dirudi. Gero, bi eskuak elkar जोz, bulego bate-tan balitz bezala, herriko mutila deitzen du).

**KLEMENTE Z.**— Nestor! Nestor!

### **KLEMENTE ZINGIL - NESTOR**

(NESTOR sartzen da eta auzapezaren aurrean bi plegu egina, galdatzen dio):

**NESTOR**— Zer nahi zenuke, Jauna?

(KLEMENTE ZINGIL *xutitzen da eta ospetsuki hauxe dio*):

**KLEMENTE Z.**— Har ezazu zure atabala eta jende guzieren jakinaraz, gure herrian, zerbait haundi, zerbait arrádo, zerbait harrigarri iraganen dela. Gure herriari buruz norbait abian dela eta hari ongi etorria egiteko jendea ostean jin dadila. Bestalde, zuk kantatuko dizkiozu ohi diren bertsuak eta deit ezazu otoi gure herriko dantzari trebeena «Aurreku» merezi baitu, delakoak...»

(KLEMENTEK «Aurreku» hitza erraiten duelarik MENANE sartzen da. NESTOR deus erran gabe jalgitzen da, beti berdin bi plegu egina).

### KLEMENTE ZINGIL - MENANE

**MENANE**— Nik, nik, Aurreku dantzatuko. Nik... Beha... beha... (Eta berak ahoz musika eginez, tripili-trapala dantzan hasten da).

**KLEMENTE Z.**— Zoaz hemendik, haur dohakabea! Bihar, bihar, sendatua izanen zirelarik dantzatuko duzu «Aurreku...».

**MENANE**— Ni ez naiz eri, aita... Zakurra da eri... Ez, ni! (Eta berriz hasten da «Aurreku» dantzatu beharrez. Orduan KLEMENTEK besotik hartzen eta tiratzen du. MENANE defendiatzen da baina aitzak bortizki tiratzen du).

**KLEMENTE Z.**— Zatoz etxera, Menane! Etxera! Menane, segi nezazu...

**MENANE**— Gaixtoa, zu... Gaixtoa!

(Eta biak ateratzen dira. Ordu berean, beste eskualdetik, NESTOR agertzen da, atabala joz. Zenbait urrats egin ondoan, auzapezak eman dion papera hartzen du eta irakurtzen hasten da):

### NESTOR

**NESTOR**— «Klemente Zingil», herri hortako jaun auzapezaren partez...

(Atabala jo beza eta lerro hori, bi, hiru aldiz errepika, tokiaren eta giroaren arabera...).

Denak gomit zarete herriko plazara...

(Orduan, salaren bi aldetarik, zenbait jende agert bitez, hala nola, IXABEL eta KOXEPA, KALIXTRO BIXOK, MENANE eta ahalaz beste batzu, baina ez dira ezagutu behar...).

**BOZEK**— Zer dela?

**NESTOR**— Jaun auzapezaren partez...

**BOZEK**— Zer dela? Zer dela?

**NESTOR**— Ahal duzuen guztiok! Herriko plazara etortzeko!

**BOZEK**— Zer dela? Zer dela?

**NESTOR**— Norbait heldu zaigula! (Atabala luzaz jo).

**BOZEK**— Zer dela?

**BOZ BATEK**— Abereak barnera sartzeko!

**BOZEK**— *Zer dela?*

**BESTE BOZ BATEK**— *Maingueria heldu zaigula!*

**NESTOR**— *Denak gomit zaretela!*

**BOZEK**— *Zer dela?*

*(NESTOR berriz taula gainera hupatzen da, hiruzpalau persona ondotik segitzen zaizkio).*

*(TARRAPAT lasterka dator eta taula gainean direnei mintzatzen zaie):*

### **TARRAPAT-BESTEAK**

**TARRAPAT**— *Ba dator! Ba dator! Ia kasik hemen dugu. Prest zarete? Denbora labur barne plazaren erdian izanen da.*

*(Eta lasterka berriz itzulzen da. Auzapeza sartzen da bere xingola soinean. Taula gainean diren batzu, hara eta hona dabiltza, batzuek jatsak hartzen dituzte eta garbitzen hasten dira, banderola ere jalgitzen dute: «Ongi etorri» idatzirik. Urrunean, soinu ospetsu bat adi bedi. Orduan sartzen da haserre bizian KALIXTRO BIXOK).*

### **HERRITARRAK - KALIXTRO BIXOK**

**KALIXTRO B.**— *Zer ari zarete hor? Zergatik bilduak zarete? Uliak! Uliak, zuek! Inoxent, buru gabeak! Xoroak! Ez ote duzue engoitik konprenitua, betidanik, beren zorakeriekin, dela jainko, jainko-falstu, jainko ttipi, sorgin, sorgintza ala azti, beti eta beti, lilluratu, enganatu eta azkenean izorratu gaituztela!*

**KLEMENTE Z.**— *Ixo! Kalixtro Bixok, ixo! Ez zazula eskandalarik monta! Ni naiz herri hontako...*

**KALIXTRO B.**— *Ba dakit, ba dakit, zuk duzula herri hontan nahi duzuna egiten! Eta edozein gauzetaz baliatu nahi duzula zure intresen fagoretan den ber!*

**KLEMENTE Z.**— *Harrika ezazue! Harrika...*

*(Orduan, batzuek harri batzu hartzen dituzte eta harrika lotzen zaizkio).*

**KALIXTRO B.**— *Egiaz, egiaz derautzuet: ez kasurik egin etorriko denari. Aldi bat bederen izan zaitzete zuen buruen jabe! Ai! (Harri bat begitardean biltzen du). Trixteak! Zoazte etxera! Ez hor egon! Ez ongi etorririk egin zuetaz trufatuko denari! Utz ezazue jaun auzapeza bakarrik... bere faltsukerian. Ai! (Beste harri bat biltzen du). Aldi bat bederen ez zaitzete zepoan sar! Altxazkitzue zuen kopetak! Iratzar zaitzete!*

*(Gero ta gehiago harri biltzen du, bera itzulikaka eta oihuka ari delarik). Herritarrak, herritarrak, ez ezazuela zuen burua berriz ere lokarraztera utz! (eta lasterka alde egiten du).*

**KLEMENTE Z.**— *Sar ezak hire filosofia ipurtxilotik!*

*(Denbora berean, atabala adi bedi gero ta hurbilago, soinua gero ta saminago... Taulagaineko jendea hara eta hona dabila, alde batetik so, bestetik so, besoz-beso, oihuno batzu botatuz:*



**JENDEAK**— *Hor dugu... Heldu da. Nondik? Hortik?*

*Hantxet... ikusten duzue, hantxet da... Non?*

*Hantxet, gain behera heldu...*

*(Soinua, gero ta bortitzago, soinu zoragarri bat... Jendea mugi bedi. Herriko mutila sartzen da).*

**NESTOR**— *Zatozte... Zatozte... Segi nezazue...*

**JENDEEK**— *Nora?*

**NESTOR**— *Hilarrietara...*

**JENDEEK**— *Hilarrietara?...*

**NESTOR**— *Bai... Aldi hontan, hilarrietan egin beharra du bere balentria!*

*(Atabala joz ateratzen da...)*

**JENDEEK**— *Goazen denak... Goazen!*

*(Taulagaina husten da...)*

*(Soinua bortitz bortitzenean).*

## **OIHALA**

*(Zatiarte denbora guztian soinu bera entzunen da, giro on bero bat atxikitzeko).*

# BIGARREN ZATIA

## I. GERTALDIA (Hilarrietan)

*(Hiru latsa-harriak, hilobi bilakatu dira, atzean gurutze bat daukatelako. Soinua ospetsu. Atabalaria sartzen da. Ondotik, jendeak, oihuz: «Ongi etorri! Ongi etorri!» Azkenik, gizon batek karrosa berezi bat tiratzen du. Karrosa gainean jarria, LILI, xuriz bezti, buruan arrosazko korona batekin. Denak taulagainean diralarik, KLEMENTE ZINGILEk, paper haundi bat eskuan, goraki irakurtzen du, jendea ixildu ondoan).*

### KLEMENTE ZINGIL

*Andre Dibinoari,  
(Atabala jo).*

*Probidentziak igortzen digun kreatura puxantari eskerrak bihurtzen dizkiogu, gure herri xume dohakabeen bere begi perfetaren so amultsua pausatu nahi izan duelako. Ilunbe hersturagarritik lorios jalgiko gaituen amandre ohoragarria ahozpez agurtuz, herritar guztiak lekuko, bere bi esku urrikalkorren artean ezartzen dugu gure konfientzia osoa.*

*Umiltasun haundienarekin eskatzen diogu bere botere espantagarriaz gure herri apal eta ahula nolabait altxa dezan, aitzinetik hitzemanak oraixe bertan obratuz, eta gero, berak gura duena konplutuz.*

*Aditurik hor gairi zer gauza zoragarriak egiten dituen, sinesten dugu gure herrian ere zerbait harrigarri asmatuko digula, bere ospea oraindik emendatuz eta hedatuz joan dadin.*

*Bitartean, urrezko bihotza duen Erreginak, onart bitza, gure errespetuzko sendimendu leial beroenak, eta jakin beza, gure zorraren ordaintzeko, bizi guztian kantatuko dizkiogula gure salmo eder hunkigarrienak!*

*Halabiz.*

*(Jendea txaloka hasten da).*

### JENDEA-KLEMENTE ZINGIL-LILI-TIRARI

**LILI**— Rasra daiabi ano nige tud...

**TIRARI**— Lilik dio: arras bidaia ona egin duela...

**LILI**— Pilpil naiz, enzu rianri tzendigel kozlani...

**TIRARI**— Lilik dio: zorionsu dela, zuen herrian gelditzen delakoz...

**LILI**— Enzu nogi riakrote tzahobi kihun tid...

**TIRARI**— Lilik dio: zuen ongi etorriak bihotza hunki diola...

(*Jendea esku zartaka...*)

**KLEMENTE Z.**— Milesker... Milesker!

**IXABEL**— Zer arropa pollita duen!

**KLEMENTE Z.**— Eta orain bertsularia entzunen duzue.

(*NESTORrek bertsuak botatzen ditu, azken lerroa jendeak doblatzen duelarik*).

### **NESTOR**

Egun guztiez, goizetik arrats, ari naiz bertsu moldatzen,  
 Merkatuetan, ostatuetan ardura bait naiz ibiltzen...  
 Dela ezkontza, dela bataio, beti zerbait dut jalgitzen  
 Arto xuritze ta urde hiltze, bat bakarra ez dut galtzen  
 Omone ona ezarri nahiz, bidez bide naiz kurritzen!  
 Egungo gaia, ez da haatik, maiz erabiltzen duguna...  
 Ez baita naski usu gertatzen gaur bezalako eguna!...  
 Gure herrian, jaun eta jabe, betiko ixiltasuna...  
 Bainan beharrik, etorri zara, ekarriz soinu ozena  
 Bihotzez agur, Andere Lili, izan zaitez Erregina!

Nahiz hastean, egia erran, ez ginen segur hain fida...  
 Zer nahi duzu... iturri hortan ez bait dakite zer konda...  
 Berri bitzi bat goizean goizik hedatu da landaz landa  
 Baizikan eta, ba zatorrela ifernuko zenbait pilda...  
 Bainan segidan, alkate jaunak, geldiarazi du kalda!

Azken bertsu bat, zuretzat Lili: ohore eta goresmen  
 Nahi genuke bizi guziko gelditzen bazine hemen  
 Baina ba dakit ez dela berdin hori posible izanen  
 Gurekin zaude, hilabete bat eta egun bat bederen  
 Gure herria zuri so dago, emaiozu zinez omen!

(*Jende guztiek esku zartak egiten dituzte...  
 Orduan MENANE lasterka heldu da, bere kiki eskuan...*)

### **BESTEAK-MENANE**

**MENANE**— Ausik, kiki! Ausik! Denak gaixtoak horiek!  
 Gaixtoak... Auskikan, kiki, ausikan!

**KLEMENTE Z.**— Menane! Menane! Zatoz ene ondora!

(*MENANEk eskapatzera egiten du, baina aitak atzetik harrapatzen du eta jestuz bortizki larderiatur, bere ondoan atxikitzen du*).

**KLEMENTE Z.**— *Eta orain, dantzaria etor bedi...*

*(Dantzari bat aitzinatzen da eta ezin hobeki «Aurresku» dantzatzen du. Ondotik, berriz ere esku zartak).*

**LILI**— *Kerlesmi! Kerlesmi!*

**TIRARI**— *Lilik dio: Eskerrak bihurtzen dizkitzuela!*

**LILI**— *Rikturazi gona!*

**TIRARI**— *Lilik dio: Zoraturik dagoela!*

**LILI**— *Enzu rianzi, baitzer dihaun, baitzer erdi, nengie tud. Riho zireme zuedu bait!*

**TIRARI**— *Lilik dio: zuen herrian, zerbait haundi, zerbait eder eginen duela. Hori merezi bait duzue!...*

*(Tarrapat hurbiltzen zaio TIRARIri eta zerbait erraten dio, jestu berezi batzu eginez. Gero, dio bat baztertzen da eta aitzineko tokira doa).*

**TIRARI**— *(LILlri mintzatuz): Tarrapatek ranre dit, niklehe zozo bat tudasen harbi bazudu...*

**LILI**— *Riho ba kitda. Eta dangise nige gogo dut.*

**TIRARI**— *Lilik dio: Bere balentria haundia egin aitzin, hitzeman bezala, lehenik, herriko zozo bat sendatuko duela!*

*(Orduan KLEMENTE ZINGILEk bere alaba besotik hartzen du eta TIRARIren aitzinera ekartzen).*

**KLEMENTE Z.**— *Hau du sendatu behar duena!*

*(Hori entzun orduko, MENANE lasterka abiatzen da, publikoaren erditik, oihuka diolarik):*

**MENANE**— *Ez naiz zozoa ni! Utz nezazu. Gaixtoa aita! Ez naiz zozoa! Utz nezazue bakean! Ausikzkin, kiki, ausikzkin! Basak zuek, basak!*

**KLEMENTE Z.**— *Menane! Menane! Zatoz, honara!*

*(Eta horrelaxe, salaren itzulia eginen dute, taulagainean aldiz, TARRAPAT ere oihuka ari delarik):*

*Menane, Menane!*

*(Azkenean, aitak biltzen du, eta MENANE, arrunt izitua, nekatua, lurrean tanpez etzaten da. Orduan, LILI, bere karrosatik jausten da, eskua luzatzen du. MENANEk burua doi bat altxatzen du eta gero, emeki, emeki, LILlren eskuaren mogimenduari jarraikiko zaio, hipnotizatua balitz bezala eta elkarren artean anitz mogimendu eginen dituzte, «ballet» bat iduri baitluka. Jendea harritua dago. Denak xoko baten gainera plantatuak dira. Mogimendu hori gelditzen delarik, LILI bere karrosari buruz doa, MENANE aldiz taulagainen erdian dago, burua ez du gehiago igitzen, pertsona «normal» bat da. Orduan aitak galdatzen dio):*

**KLEMENTE Z.**— *Hea, Menane, errazu nor ziren! Hea, ba, mintza zaitез...*

**MENANE**— *Nipi, Mepenapanepe naizpaiz, heperripi honpontapakopo meperaparenpen apalapabapa!*

**KLEMENTE Z.**— Menane! Menane! Zer derasazu? Baina Jainkoaz zer derazu? Aitzinean baino zozoago da! Tirari, erraiozu zure julufriari ene alaba zinez senda dezan, edo bestela, segidan lekuak huts ditzan!

**TIRARI**— Ez lade tuadasen! Rizbi kotehas!

**LILI**— Ez kotzeizi! Raboden pura bat harbi lade!

**TIRARI**— Lilik dio: Ez izitzeko! Denbora apur bat behar dela!

*(Eta bere karrosatik jautsiz, aitzinean egin jestu berak hasten ditu, doi bat aldatuz. Bururatzearekin, LILI, berriz bere karrosa gainean jartzen. MENANE, taulagain erdi-erdian).*

**KLEMENTE Z.**— Eta orain Menane, hobeki zara? Zer senditzen duzu?

**MENANE**— *(Biziki seriocki):* Senditzen dut: ezkerreko matelan zure eskuineko eskuaren zartakoa; senditzen dut: eskuineko matelan zure ezkerreko eskuaren zartakoa; senditzen dut: ipurdi mazelan, zure makil ukaldien kaska; senditzen dut...

**KLEMENTE Z.**— Ixil zaitex, Menane! Ixil!

**MENANE**— Senditzen dut, eskaleer gainetik goiti-behera bota ninduzularik, maila bakoi-tzak ixterretan egin zidan zauria... eta buruan bildu nuen kolpea!

**KLEMENTE Z.**— Aski Menane! Aski!

**LILI**— Tudasen adi?

**TIRARI**— Lilik galdatzen ud sendatua denetz?

**KLEMENTE Z.**— Bai! Sendatua da!

**MENANE**— Eta ene ama zenari zer egiten zenion, nahi duzu erran dezadan?

**KLEMENTE Z.**— Ixil, Menane! Ixil! Zatoz ene ondora...

**MENANE**— Ez! Eta oizu... ene oroitzapenez!

*(Eta «zakurra» gainera botatzen dio... eta irtetzen da. KLEMENTEK aldiz, zoko batetan ezartzen du).*

**TARRAPAT**— Ikusi duzue? Eh... ikusi duzue? Sendatu du! Sendatu!

**JENDEAK**— Menane sendatu du! Hiuffi!

*(Eta jendea eskuzartaka hasten da).*

**TARRAPAT**— Tirari, galda iezaiozu zer egin gogo duen orain?

**TIRARI**— Rez nigi hina zudu raino?

*(LILIK, atabaliariari keinu egiten dio etor dadin. NESTOR hurbiltzen da. Bere ziri edo makiltxo bereziarekin, LILIK hiru aldiz jotzen du atabala, behar den denborarekin).*

**TIRARI**— Rez ranre hina zudu?

*(LILIK, bere makilarekin jestu haundi batzu egiten ditu, erronda formakoak).*

**TIRARI**— Lilik galdatzen du herri hontako hilen zerrenda ikusi nahi lukeela...

**KLEMENTE Z.**— Hilen zerrenda? Zertarako?

**TIRARI**— Ez galderarik egin! Eta ekar segidan...

**KLEMENTE Z.**— Ez nuke nahi eskandala edo sakriliorik monta dezan!

**TARRAPAT**— Zure alaba sendatu du, ez!

**KLEMENTE Z.**— Sendatu... sendatu...

**TIRARI**— Bai, sendatu du. Eta beraz orain, onartu behar duzu Lilik gura duena.

**KLEMENTE Z.**— Eta zer nahi du, xuxen?

**TIRARI**— Rez ragu zudu?

**LILI**— Azken ruhi tupiz lakhi hina tudi.

**TIRARI**— Lilik dio: herri hontako, azkenik ehortzi hiru hilak, gaur piztu nahi dituela!

**JENDEAK**— Hilak piztu? Jainko ona! Ez da posible! Hilak piztu. Hiru hil piztu?! Jainkoak gaztigatuko gaitu!

*(Eta lerro hori gisa askotara erranez, jendea hara eta hona ba dabil, eskuak altxatuz, doi bat zoratua! Bruhaha gaitza sort bedi...)*

**KLEMENTE Z.**— Mendia, tokiz alda dezan, paso! Baina hilak pitz, hori ez! Tirari! Erraio-zu ez dudala onartzen! Zoazte hemendik! Zoazte!

**TARRAPAT**— Bixtan da onartu behar dugula!

lzaiten ahal den berri espangarrienetako bat da!

Horrelakorik egin baleza, ba dakizu zer litzakeen? Jende guztia, hemen gertatuaz mintzo! Zuen xokoa mundu zabal-zabalean ezagutua!

Beilariak, ehunka, milaka, miliunka abia litezke hona buruz...

Edozein erresumetako buruzagia baino ezagutuago zinateke! Eta... eta hilak berak...

**KLEMENTE Z.**— Ez dut onartzen!

**TARRAPAT**— Hilak berak, bizi! Azken hiru hilak, hementxet, gure artean, ttapa ttapa ibil-ki; edo berdin, nork daki, bozkarioaren bozkarioaz, berriz honara itzulirik... irrintzi-naka, punpeka eta jauzika has litezke...

**KLEMENTE Z.**— Ixil zaitetz!

**TARRAPAT**— Ni, ixil?! Ez arazi! Ene bizian ikusiko dudan gertakari arradoenaren aitzinean izanki eta, nahi zenuke, ixil nadin?! Ba hal dakizu zer deragazun? Horrelako gauza bat gerta baledi, nik gero, berri hori herriz konda nezake eta segur naiz lasai bizitzekoa bil nezakeela!

**KLEMENTE Z.**— Ez dizuet hilen zerrendarik emanen!

**TIRARI**— Berdin du! Kutx ala pil eginen dugu!

**KLEMENTE Z.**— Kutx ala pil?

**TIRARI**— Bai!

**KLEMENTE Z.**— Jainkoaz, zoazte hemendik!

**TIRARI**— Hobe duzu onartzea; bestela, Lilik, zu zaitu igorriko beste mundura!

**KLEMENTE Z.**— Zerk atzeman behar genituen!

*(Jendeari). Baina errazue zuek ere zerbait! Lagunt nezazue! Fuera ditzagun! (Jendeak mogimendu tipikoa egiten du).*

**LILI**— Rez sapatzen da? Rez erraten tidu?

**TIRARI**— Lilik galdetzen du zer duzuen bada? Ez otoi izitzeko! Gauzak ongi iraganen direla!

**KLEMENTE Z.**— Goazen etxera!

**TARRAPAT**— Burutik maingu zarete, ala? Ez, ez! Hemen egon behar duzue! Eta nola! Tirari, erraiozu, Andre Dibinoari ernatzeko! *(Urrats haundi batzuekin):* Pitz dezala, lehena! Pitz dezala! *(LILI bere karrosatik jausten da jestu berezi batzuekin):* Bi eskuak altxaturik hurritzen da, zerbait bilatzen balu bezala).

**TRIPERO**— Uste duzu norbait piztuko duela?

**IXABEL**— Batere ez dakit...

**TARRAPAT**— Bixtan da baietz!

**NESTOR**— Ikusiko!

**BESTE BAT**— Ni segurik ez naiz batere fida!

**TARRAPAT**— Dudatzen duzue?

**KLEMENTE Z.**— Zerk atzeman behar genituen!

**IXABEL**— Beldur naiz! Beldur!

**TRIPERO**— Eta nor piztuko du?

**NESTOR**— Jainkoak daki!

*(Lerro horiek ahopetik erranak dira eta biziki laster; kasik ez da xuxen konprenitu behar ere nork zer derasan; bitartean LILI, hara hona dabila eta momentu batez, hilobi baten aitzinean net gelditzen da eta bere makila magikoak hiru ukaldi jotzen ditu...).*

**TIRARI**— Hilobi hortan da lehenik piztuko duena! Eman zaitzete itzulian!

**KLEMENTE Z.**— Zer egiten dugu?

**TARRAPAT**— Hurbil zaitzete! Hurbil!

*(LILIn eta hilobiaren itzulian plantatzen dira jendeak, denak besoz-beso).*

**TIRARI**— Eta orain, has ditzagun otoitzak...

**JENDEAK**— Otoitzak?

**LILI**— *(Liburu bat hartuz)* Xirula,  
Xiruli,  
Sagarren puntan mihula,  
Sagarren pean mihuli,  
Xiru liru la,  
Xiru liru li.

**TIRARI**— Errepika dezagun! (**Eta errepikatzen dute**).

**LILI**— Xirula,  
Xiruli,  
Neguak bihotz ahula,  
Iguzkira agert hadi.  
Xiru liru la  
Xiru liru li.

**TIRARI**— Denek! (**Eta denek batean errepikatzen dute eta «otoitza» bururatu bezain lester LILIk keinu bat egiten dio NESTORreri. Honek, segidan atabala hartzen du eta «zirkoetan» bezala «roulement» bat egiten du, LILI, bitziki mugitzen delarik. TIRARI, bere karrosaren ondotik kondatzen hasten da**):  
Bost, lau, hiru, bi...

**IXABEL**— (**Oihuz**.) Geldi! Jainkoaz geldi! Gure etxeko hilobia da hau... eta azkenik ehortzia, aita zena izanki! Ez dut nahi pitz dadin! (**Jendeak, halako, «hohoho» bat egiten du**).

Bizi guztian, gizon oihes, gizon hastiel bat izan da. (**Jendea marmarmar**)... Ah... zuek, kanpoaz duzue bakarrik ezagutu. Kanpoan bai, ederrarena egiten zuen! Mihi leguna, eleketari pollita, noiz behinka zirto bat edo bi... denen agradagarri... Baina etxean, ikusi bazenute etxean, nolakoa zen! Zakur zaharra baino tzarragoa zen!

**TRIPERO**— Ez zarea ahalke, Ixabel, zure aita zenaz horrela mintzatzeko!

**IXABEL**— Ahalke? Ez batere... Bon, bixtan da, zeruan baldin bada, hobe... Baina Jainkoaz han egon dadila! Ez dugu segur, haren, berriz hemen ikusteko gutiziarik! Ah, ez! Haren oihu eta erasiak aski entzunak ditugu!

**KLEMENTE Z.**— Muslari ona zen... Beti elkarrekin ari ginen...

**IXABEL**— Oh bai... musean, eta pipan eta merkatuan, nork atxik, gu?! Norbait zen, norbait! Baina etxeko lan guztiak, barnekoak eta kanpokoak, guk egin behar! Eta gainera sekula ez kontent!

**TRIPERO**— Ez zen, ez zen alferra zuen aita...

**IXABEL**— Alferra, ez! Baina lan egina maite!

**TARRAPAT**— Segur naiz arrunt aldatua dela... Pentsa... horgaindi egoiteak... on egiten du gero!

**IXABEL**— Behar bada... Baina halere ez dut nahi pitz dezan!

**TARRAPAT**— Zergatik, ez?

**IXABEL**— Zeren eta... zeren eta... bizi guztian debekatu bait dit, nik maite nuenarekin ezkontzea!... Eta horra zergatik mutxurdin gelditu naizen... Aitaren gatik! Baina orain, gure aferak biziki bide onean dira... Gauaz, leiho azpira etortzen zait... eta beraz, laster...

**TARRAPAT**— Ohera! (**erdi ahopetik**).

**IXABEL**— Konprenitzen nauzue... (**LILiren aitazinean belaunikatuz**). Jainkoaz ez dezazula pitz! (**LILIk jestu bat egiten du eta ISABEL zutitzen da**).



**TIRARI**— Ongi da! Beste bati lotuko gara beraz! (**Urrundik, sala atzetik izan daiteke, irrintzin bortitz bat entzun bedi, gero, beste bat edo bi... Ondotik bozak hau xe dio**):

**MENANE**— Harrxiloko akerra eta zazpi ahuntzak Bakardatzeko baratzean sartu direla! Harrxiloko akerra! (**Irrintzina**) Bakardatzeko baratzean!

(**MENANE agertzen da hatsandura eta lerro hori anitz modeetara erranez, baina ez da batere lehen ikusi beztimendetan, orain arrunt nexkato gazte «apaindu» bat egiten du; itzalki bat eskuan eta doi bat andere haundi dirudi. MENANEk dio**):

**MENANE**— Denak jan dituzte: aza zango luzeak, aza burukastak, aza landareak, tipulak, porruak, xarbotak eta perrexila, piperrak, entseladak, pastenagreak, ilarrak, denak! Baratzea, garbitu dute! Ez da gehiago ondo bat gelditzen!

**GIZON BAT**— Ez nuen beste beldurrik! Aker madarikatua! Ahuntza napur ustel zikinak! (**eta urrats haundiz jalgitzen da**). Atzeman ditzatala, atzeman... ez dutenetz gure baratzetik alde eginen!

**IXABEL**— Segur nintzen! Segur! Aker deabru horrek eta ahuntza zozo horiek gure herri guztia nahasiko zutela! Dena horien falta da! Ba nekien nik, aker horrek, ez zigula makurrik baizik ekarriko!

**TIRARI**— Bon, bon utz ditzagun akerra eta ahuntzak beren gisa eta segi dezagun hasi saila. (**LILlri mintzatuz**) Jarraik gundeza daiabi... Raboden ainatzi ado!

(**LILI, deus erran gabe beste hilobi baten aitzinean plantatzen da. Gero, bere makilanoarekin hiru ukaldi ematen ditu eta atabolariari keinu egiten dio. Hau, segidan atabala jotzen hasten da. LILI dena jestu eta sino, TRIPERO, holobiaren eta LILlren artean plantatuz, bi eskuak zabaldurik**).

**TRIPERO**— Ken hortik! Ez, ez, ez, ez! Utz ezazue gure hilobia bakean! (**Atabolariari**) Nestor, geldi hadi! Esplikatuko dizuet dena...

(**Atabalaria gelditzen da, LILI doi bat baztertzen...**).

**TRIPERO**— Azkenik ehortzia hemen, gure hilobian, ene andre zena da, Filomena. Duela bi urte galdua dut. Galdua... erraiteko manera bat da... Duela bi urte pausatu zen... Eta jakin ezazue ba zuela pausatzearen beharra; gaizoak! Bizi guztian ez baitzen gelditua... eleketatik! (**Jendeak, hohoho!**).

**LILI**— Tirari, rez erraten di?

**TIRARI**— Pentahas tab oraini. Kosiko gore. Segi ezazu!

**TRIPERO**— Eleketa maite zuenetz gure Filomenak?!

Ez duzue asmatzen ahal! Goizetik arrats, ez zuen ixiltzerik! Eta gauaz ere, funtsean, ez nituen bakean uzten! Ba pentsa... gauero, hiruzpalau aldiz iratzarrarazten ninduen, baizik eta zurrunga egiten nuela eta ez zuela begirik hesten ahal! Azkenekotz ez genuen gela berean lo egiten ere!

**IXABEL**— Baina zer derasazu, Tripero? Filomenak eleketa maite zuela, eta gero zer? Ez da arrazoi bat hori!

**TRIPERO**— Ez dela arrazoi bat?

**IXABEL**— Ez! Zuek gizonek, emazteak mendratu nahi dituzuelarik, betiko zozokeria ateratzen duzue: eleketariak garela! Beste zerbait harrapa dezazu bederen!

**TRIPERO**— Mutxurdin mekela! Alabaina, zerbait atera bait dezakezu, zuk! zure aita zenaz hain gaizki mintzatu ondoan!

**IXABEL**— Eta zu, ez ote zara, gaizo Filomenaren bigarren aldikoz ehorzten ari! Gizon, trixtea, ez bestea!

**KLEMENTE Z.**— Ezti zaitetze, ezti! Tripero ba duzua beste zerbait erraiteko?

**TRIPERO**— Bai eta nola! Berrogei urtez nik jasan ditudanik, gure Filomenarekin! Ez zuen sesurik! Ixilik baldin banindagon, zergatik ez nuen zerbait erraiten; eta sekula arrapostu bat emaiten banion, ah orduan, orduan, xintxin mariak! Hortaz aparte haatik, emazte plantakoa zen. Langilea... Garbia. Kaliateak ba zituen... Kalitate haundiak... eta mihi hura, mihi deabru hura ez balu hor ukan, paregabea izanen zen gure Filomena... Jainkoak bere lorian daukala!

**LILI**— Kotupiz gudu!

**TIRARI**— Lilik dio: piztuko duela!

**TARRAPAT**— Pitz dezala!

**TRIPERO**— Ezetz eta ezetz. Ez dutala nahi! Beste edozein, baina ez hura! Filomena, bego zeruan! Bestenaz ere, ni orain, zahartua naiz... Eta dena den, nahiago nuke oraino, nik, haren ondora joan, ezinez eta hura, berriz hemen ikusi!

**IXABEL**— Faltsua! Gizon zikoitz, bihotz gabea!

**TRIPERO**— Zaude ixilik, zu! Edo mihi hori errotik kentzen dizut!

**IXABEL**— Hara! Hara! Ba dakit, orain, nik, Triperok zer egin zion Filomenari!

**JENDEAK**— Zer egin zion?

**IXABEL**— Mihia errotik kendu! Eta hartakoz, ez du nahi, Filomena pitz dadin!

**TRIPERO**— Gezurra! Gezurra!

**IXABEL**— Filomenak sala bait lezake Triperoren abrekeria!

**TRIPERO**— Ez dut onartzen! Mutxurdin kelementsak! Akerrak joan bezala bere adarren puntan!

**KLEMENTE Z.**— Txo! Txo! Ez dut eskandalarik nahi! Jada, horrela, nahiko saltsa ba dugu eta!

**TRIPERO**— Erranen dizuet gero, eta kopeta gorarik oraino, nola joan zitzaigun gure gai-xo Filomena... Egun hartan, beste orduz baino biziki, biziki gehiago ari zen klaklaklaklaklaklaklaklakla... Zer zerasan, xuxen, nola adi? Buru-beharriak, azkene-koz tutatuak nituen. Eta horra non, bat batean, ixiltasun haundi batek inguratzen nuen. Alegia deusez, begi bazterraz so egiten diot... Eta zer ikusten dut? Filomena, ahora zabal zabalik... begiak zeruari so! (**Gurutzearen seinalea egiten du**. Ba dakizue, zer gertatu zitzaion? Egun hartan, gehiegi mintzaturik, mihia irentsi zuen! Mihia irentsi! Eta ito! (**Berriz ere zeinatzen da**). Horra egia den bezala! (**TRIPEROK azken so-**

*lasak erran orduko, xilintxa baten soinua entzuten da. Xilintxa hori hiruz-palau aldiz entzun bedi. Apeza agertzen da, jantzi ederrez apaindua, eskuineko eskuan kurutze edo ontzi berezi bat daukala, ezkerrekoan aldiz delako xilintxa. Jendea ikustean harritzen da, eta gero larderiatsu mintzatu-ko da).*

### JENDEAK - DON IPOLIT

**D. IPOLIT**— Jainko maite zeruetakoa! Ama Birjina, apostolu eta saindu guztiak! Zer gertatzen da hemen? Baina, baina, baina, hilarrietan zer egin gogo duzue, bada?

**TARRAPAT**— Hilak piztu!

**D. IPOLIT**— Jainkoaz, ixilik zaude!

**TARRAPAT**— Egia da!

**D. IPOLIT**— Aski! Ah bai, konprenitzen dut orain... Konprenitzen! Etorri da beraz delakoa. Ez nuen beste beldurrik! Etortzera utzi duzue... Eta hilarrietara gainera! (**Bortitz**) Klemente Zingil, herri hontako auzapez gisa, hitzmana zenidan alta, ez zela ezer gertatuko! Non duzu zure hitza? Jaun Goikoak gaztigatuko zaitu eta zuek guztiak berdin! Fede ttipiko gizon emazte ezdeusak, zuek! Non duzue bada Jainkoaren beldurra? Non duzue gure hil gaixoen errespetua?

**LILI**— Ron de riho eta rez hina di?

**D. IPOLIT**— Nor da hori?

**KLEMENTE Z.**— Hori da... delakoa!

**D. IPOLIT**— Hori? Emazte txar perreka hori?!

**TIRARI**— Kasu emazu zer derasasun! Daiabi habe piluli...

**TARRAPAT**— Hori da bai, delako Andere Dibinoa. Sekulakoak egiten ditu...

**D. IPOLIT**— Baina zuek, egia erran behar eta, uste nuen baino ere zozoagoak zarete, bai! Zinezko teteleak!

**TIRARI**— Hobe zenuke ixiltzea! Bestela, Lili, haserretuko bait da...

**D. IPOLIT**— Eta gizon ttakala hori berriz, nor da?

**TARRAPAT**— Andre Dibinoaren tiraria...

**D. IPOLIT**— To, to, to...

*Baizik eta bost kintal pisu zituela delakoak... Zilkorainoko bizar batekin zela, eta nik dakita zer oraino! To, to, to... Hauek ditugu beraz gure herria sutan ezarri duten pika buztanak! Eta ez zenituzten besapean harturik biak hemendik firrindika igortzen ahal! To, to, to, ikusiak ikusi... Balio baitzuen! Ni orain, Koxeparen etxetik nator... Ixtorio hauekin, burua arrunt nahasi zaio... Non nahi ikusten ditu akerrak... Sukar haundi batek erretzen dio gorputz guztia... Oliaturik utzia dut...*

**IXABEL**— Gaixo Koxepa! Ba noa haren ikustera...

**TARRAPAT**— Ez! Zaude hemen, zu! Behar bada oraino, zure aita zena...

**IXABEL**— Jainkoaz, ez!

**D. IPOLIT**— Zer egin nahi diozue Ixabelen aita zenari?

**TIRARI**— Piztu!

**D. IPOLIT**— Zoazte hemendik! Zoazte! Sorgin dohakabe madarikatuak! Utz ezazue leku sakratu hau bakean! (LILI, **sakez, halako zerbait gainera botatzen dio eta DON IPOLIT tanpez gelditzen, mututua bezala, gero apur baten buruan izigari-ko koleran hauxe botatzen du**):

**D. IPOLIT**— Ah... ez nauzue entzun nahi! Ez nauzue obeditu nahi! Dolutuko zaizue, dolutuko! Jaun apezpikuari salatuko diot zuen egitate lotsagarria... (**Oihuz**) Eta Aita Sainduak, denak eskumikatuko zaituzte. Denak! (**Eta xilintxa bortitz joz jalgitzen da. Bi edo hiru jende ondotik abiatzen zaizkio. TARRAPATEk geldiarazten ditu, MENANE salbu**).

**TARRAPAT**— Zaudete hemen! Otoi! Zaudete hemen! Orain da eta, momentu hoberena!

**TIRARI**— Bai! Erna gaitezen. Lili asetzen hasia da.

**TARRAPAT**— Pitz dezala norbait! Pitz dezala eta kito!

**TIRARI**— Bai, piztuko du! Baina aldi hontan, denek ados izan beharko duzue. Hauta zuen artean. Egin karkulak. Mia hilaren alde on eta txarrak. Ikus, nork duen merezi mundu hontara berriz itzultzea... Mintza lanoki...

**LILI**— Tirari, rena lazatedi!

**TIRARI**— Aldi hontan, nor gerta eta hura piztuko du! Beraz, ongi piza ezazue zuen hauta! Bi aldiz barkatu dizue. Hirugarrena, lehena eta azkena izanen da!

**KLEMENTE Z.**— Zuen ustez nor hautatzen dugu?

(**Taula gainean diren guztiek, bakoitzak bere aldian eta bere moldean ihardesten du**):

**JENDEAK**— Ez dakit. Nik ez dakit... Batere ez dakit.

**KLEMENTE Z.**— Eta aingeru bat pitz baleza...

**TIRARI**— Ez aingerurik! Jende haundi bat!

**KLEMENTE Z.**— Emazte bat edo gizon bat izan dadin berdin dea?

**TIRARI**— Bai.

**KLEMENTE Z.**— Nik proposatzen dizuet: Bidarteko Benat...

**IXABEL**— Ah, ez! Aita zenak harekin ezkontarazi nahi ninduen!

**KLEMENTE Z.**— Xipiteiko klodina, beraz?

**TRIPERO**— Berdin, ori! Horrelaxe bere zorrak azkenean ordainduko dizkit! Bi oilaxko pare, hiru ahate, antzara bat... Bost lukainka zizter...

**KLEMENTE Z.**— Bego hortan! Ixo! Eta Karrikarteko Xarlex?

**IXALEL**— Mozkor tzar hura?! Ah, ez!

**NESTOR**— Nik nahiago nuke Larrondoko Gaxuxa...

**TRIPERO**— Alabaina... Non min, han hatz...

**TIRARI**— Denbora doa...

**KLEMENTE Z.**— Usta dut atzeman dudala... Ah, bai... Hura pitz dezan, segun naiz, hemen, denak ados ginatekeela. Hain zen gizon ona, zerbitzu egina, laketa, ixila, langilea...

**JENDEAK**— Nor? Nor erran nahi duzu?

**KLEMENTE Z.**— Jakobe artzaina...

**JENDEAK**— Oh bai... Hura bai!

**IXABEL**— Zer pena ez baitzen ezkondu!

**KLEMENTE Z.**— Hain zen alta, mutiko plantakoa!

**TRIPERO**— Ez zuten segur deusen eskasik haren ardiek!

**KLEMENTE Z.**— Norbait piztekotan, Jakobe artzaina pitz dezan, ados zarete?

**JENDEAK**— Bai! Bai!

**KLEMENTE Z.**— Hementxe ehortzia da Jakobe artzaina.

(LILik keinu egiten dio NESTORreri. NESTOR segidan «roulement» bat egiten hasten da. LILI dena jestu eta sino. Jendea aldiz, hilobi ondora hurbiltzen da...).

**TIRARI**—

Xirula  
Xiruli  
Neguak bihotz ahula,  
Jakobe agert hadi...  
Xiru liru la  
Xiru liru li.  
Asa!... Bost, lau, hiru, bi, bat!

(TIRARIk azken hitza bukatu orduko, hilobi barnetik halako orro bitzi bat entzuten da. Orro hori gero eta haundiagotuz joan bedi, denbora berean ke bat emeki emeki zabaltzen delarik. Jendea izitzen hasten da. Orroak, orain, ikaragarriko zarrata egiten du. Jendea oihuz hasten da, eta lasterka):

**KLEMENTE Z.**— Goazen hemendik! Goazen! Eta laster!

**IXABEL**— Ez dezazula pitz!

**TARRAPAT**— Heldu da, heldu!

**KLEMENTE Z.**— Ifernua!

**TRIPERO**— Bego Jakobe den tokian! (Bakoitzak...).

**NESTOR**— Munduaren akabantza... Hortz karraskak!

(Bakoitzak bere lerroa erran beza, besteak zer dion entzun gabe, maiz elkarrekin errepikatuko dutelarik «goazen hemendik!» «Ez dugu nahi pitz dadin» eta horrelako. Argia, pitzilka ari da. Kea emenda bedi. Orroa halaber.

*Jendea, alde orotatik eskapatzen da, oihuka. Batzu salaren erditik. Momentu batez LILI ez da gehiago ikusten. Tirari aldiz, LILlren karrosa gainera hupatzen da eta oihuka hauxe dio):*

**TIRARI**— *Jende zozoak! Ez da gure falta... Ez! Nahi ukan balute... Lilik piztuko zuen nor-bait! Baina ez dute onartu, asto horiek! Ez da gure falta. Piztuko zuen gero! Eta nola! (Keak denak estaltzen ditu. Bultano baten buruan LILI agertzen da. Hau ere oihuz ari da):*

**LILI**— *Tirari! Tirari! Tirari!*

*(TIRARI, karrosa gainean kurubilkatua da eta ez dio ezer erantzuten. LILIk, berak, hartzen ditu karrosaren giderrak eta itzulikaka hasten da, arrunt galdua balitz bezala. Azkenean jalgitzen da karrosa tiratuz. LILI atera orduko, orroa doi bat eztitzen da, kea ere bai. Orduan, eskuin aldetik, MENANE agertzen da, hastean zen bezala beztitua eta burua alde orotara mugitzen duela, net zozoa):*

**MENANE**— *Kiki! kiki! Non haiz, kiki? (Bazterrak miatzen ditu eta azkenean bere zakurra harrapatzen du). Ikusi dun, kiki? He... Ikusi dun? (LILI etorri eta joan den bidea erakutsiz): Nola jin, hala joan! Nola jin, hala joan! (eta burua oraindik gehiago igituz jalgitzen da).*

## **OIHALA**

---



---

## SINTESIS

---



---

**E**N una pequeña aldea vasca, donde todo parece tranquilo, un mensajero anuncia la llegada inminente de un personaje misterioso que realiza prodigios.

Dos lavanderas -Koxepa e Ixabel- que charlaban alegremente de naderías, sin olvidar los chismes de la comarca, se azoran al enterarse de una noticia increíble. Koxepa irá inmediatamente a ver al señor alcalde. Ixabel, por su parte, prefiere advertir al cura del pueblo, convencida de que hay algo de brujería en este asunto.

La respuesta es inmediata.

El cura sermonea agriamente a las dos pobres mujeres, reprochándoles su falta de fe en la Iglesia católica. Sin embargo, está dispuesto a organizar una gran procesión para impedir que ningún extraño vaya a perturbar la paz del pueblo.

El alcalde ve el asunto de otra manera. En efecto, como una de sus hijas es disminuída mental, espera que este personaje fuera de lo común pueda curarla. Con esta condición, autorizará la entrada del adivino al pueblo.

Y llega el gran día.

La hija del alcalde se cura. Al menos, es lo que se cree. Por lo tanto la ceremonia puede comenzar. ¿Pero, qué ceremonia? El misterioso personaje -una señora que habla un lenguaje incomprensible propone resucitar a tres muertos... Sobresalto general, crisis de histeria... Y el colmo: nadie desea que uno de sus muertos vuelva a la vida. El rechazo es absoluto y cualquier argumento es válido para dar esta historia por terminada.

La adivina insiste. Por fin, los vecinos se ponen de acuerdo sobre la posibilidad de resucitar a una persona. Se trata de un honrado pastor sin familia.

Pero cuando comienzan los hechizos, tiemblan el cielo y la tierra; un estrépito ensordecedor asusta a todo el mundo. No queda nadie más que la adivina en el cementerio... y ésta acaba de perder todo su poder mágico.

¿Se trata sólo de una farsa? ¿De una crítica de las creencias?

Las posibilidades de interpretación de esta comedia quedan abiertas para cada cual según sus gustos.

---



---

## SYNTHESE

---



---

**D**ANS un petit village basque, alors que tout semble calme, un messager annonce l'arrivée imminente d'un personnage mystérieux, qui fait des choses extraordinaires.

Les deux lavandières -Koxepa et Ixabel- qui discutaient allégrement de la pluie et du beau temps, sans oublier les cancans du pays, sont affolées en apprenant cette incroyable nouvelle. Koxepa ira trouver innédiatement Monsieur le Marie. Ixabel, quant à elle, préfère avertir le pasteur du village, persuadée qu'il y a un peu de sorcellerie dans cette affaire.

Les réactions ne se font pas attendre.

Le curé sermonne sèchement les deux pauvres femmes en leur reprochant leur manque de foi en l'Eglise catholique. Toutefois, il est prêt à organiser une grande procession pour empêcher à tout étranger de venir perturber la paix du village.

Monsieur le Maire voit la chose différemment. En effet, l'une de ses filles étant handicapée mentale, il espère que ce personnage hors du commun pourra la guérir. A cette condition, il autorisera l'entrée au village du devin.

Et le grand jour arrive.

La fille du maire est guérie. Du moins, le croit-on. La cérémonie peut donc commencer. Mais quelle cérémonie? Le mystérieux personnage -une dame au langage incompréhensible- propose de ressusciter trois morts!... Afollement général, crises d'hystéries... Et le comble: personne ne souhaite voir revenir à la vie un de ses morts. Le refus est total, et tous les arguments sont bons pour essayer de stopper cette épouvantable histoire.

La devineresse insiste. Pour en finir, les villageois se mettent d'accord sur une personne qu'ont peut éventuellement ressusciter. Il s'agit d'un brave berger qui n'a aucune famille.

Mais lorsque les incantations commencent, ciel et terre tremblent; un vacarme étourdissant effraie tout le monde. Il ne reste plus personne au cimetière sauf la devineresse... qui a perdu tout son pouvoir magique.

Simple farce? Critique des croyances?  
 Cette comédie laisse à chacun le choix d'interpréter à son goût ce que bon lui semble.



# ANTZERTI

## Argitaratuen aurkibidea

### 1984

64	ALTABIZKARKO KANTA .....	Hamasei ekitalditan .....	Arozena, Eugenio
65	SANTA JENEPIEBA .....	(Pastorala) .....	Heguiaphal, Martxelinen moldaketa
66	BATA ZU ETA BESTEA NI .....	Irri antzerkia/Hiru ekitalditan .....	Begiristain, Iñaki
67	ASTOLASTERRAK .....	Bilduma .....	Urkizu, Patri
68	ZORTZI EHUN AHARI .....	Hiru zatitan .....	Irigoyen, Guillaume
69	MATALAS .....	Hiru Ekitalditan .....	Larzabal, Piarres
70	AGUREOK MAITEMINDU BEHAR EZ .....	Hiru ekitalditako fartsa .....	Castelao, Alfonso R. (Antonio M. Labayenek Euskaratua)
71	IZUAREN AURPEGIA .....	Bi ekitalditan .....	Fo, Dario (X. Mendigurenek Euskaratua)

### 1985

72	BERENGELA IZENeko OTARANTZA BATEN IBILKETAK ETA BIRIBILKETAK .....	Pastoral satirikoa .....	Manuel María (K. Izagirek Euskaratua)
	MAIATZA ZORABITUAREN PASTORALA .....	Pastoral satirikoa .....	Manuel María (K. Izagirek Euskaratua)



Eusko Jaurlaritza  
Kultura Saria

# ANTZERTI

c/ Andía, 13 - 3.º  
SAN SEBASTIAN

## 40 ANTZERTI

73	JULIO ZESAR .....	Bost ekitalditan .....	William Shakespeare (X. Mendigurenek Euskaratua)
74	HERIO DANTZA .....	.....	Strindberg (X. Mendigurenek Euskaratua)
75	NEKRASSOV .....	Zortzi Koadrotan .....	Jean Paul Sartre (X. Otlarrak Euskaratua)
76	ZEUK HAHU DUZUNEZ .....	Bost ekitalditan .....	William Shakespeare (X. Mendigurenek Euskaratua)
77	BEHIN BATEAN... JU, JU, JU.....	Zazpi agerraldian .....	TAUPADA Antzerki taldea
78	ENDRIKE VIII .....	Hiru ekitalditan .....	William Shakespeare (X. Mendigurenek Euskaratua)
79	NEURRIARI NEURRIAZ.....	Bost ekitalditan .....	William Shakespeare (X. Mendigurenek Euskaratua)
80	BI AHOKO EZPATA .....	Hiru ekitalditan .....	I.E. Odriozola
81	NOLA JIN, HALA JOAN.....	Bi zatiak .....	Daniel Landart

- **ANTZERTI berezia** *Aldizkariaren harpidetza (4 ale urtean)*  
 Suscripción de la revista (4 núms. al año)
- |                                         |                  |                          |                                               |                   |                          |
|-----------------------------------------|------------------|--------------------------|-----------------------------------------------|-------------------|--------------------------|
| <i>España Estadua</i><br>Estado Español | <b>1.200</b> pts | <input type="checkbox"/> | <i>Europa eta Amerika</i><br>Europa y América | <b>1.500</b> pts. | <input type="checkbox"/> |
|-----------------------------------------|------------------|--------------------------|-----------------------------------------------|-------------------|--------------------------|
- **ANTZERTI** *Aldizkariaren harpidetza (12 ale urtean)*  
 Suscripción de la revista (12 núms. al año)
- |                                         |                  |                          |                                               |                   |                          |
|-----------------------------------------|------------------|--------------------------|-----------------------------------------------|-------------------|--------------------------|
| <i>España Estadua</i><br>Estado Español | <b>1.800</b> pts | <input type="checkbox"/> | <i>Europa eta Amerika</i><br>Europa y América | <b>2.300</b> pts. | <input type="checkbox"/> |
|-----------------------------------------|------------------|--------------------------|-----------------------------------------------|-------------------|--------------------------|
- **ANTZERTI** *eta* **ANTZERTI berezia** *Aldizkariaren harpidetza (16 ale urtean)*  
 Suscripción de la revista (16 núms. al año)
- |                                         |                  |                          |                                               |                   |                          |
|-----------------------------------------|------------------|--------------------------|-----------------------------------------------|-------------------|--------------------------|
| <i>España Estadua</i><br>Estado Español | <b>2.500</b> pts | <input type="checkbox"/> | <i>Europa eta Amerika</i><br>Europa y América | <b>3.000</b> pts. | <input type="checkbox"/> |
|-----------------------------------------|------------------|--------------------------|-----------------------------------------------|-------------------|--------------------------|

Izen-deiturak / Nombre y apellidos.....

Zuzenbidea / Dirección.....

Hiria / Ciudad..... Probintzia / Provincia..... Nazioa / Nación.....

Ordainketa era / Forma de pago:

Taloi / Talón





**ANZERTU**  
**ZER BITZAZA**

**EVSKO JAVRLARITZA · KULTURA SAIA**